

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Carmelo Bilbao Aretxabaleta

*Markina-
Xemein,
Bizkaia (1945)*

Aurkibidea



Biografia



Markinan jaio zen, kokoteak egiten zituzten gozotegi batean. Bederatzi urte zituela, ama hil zitzairen eta etxeko negozioan lanean hasi behar izan zuen. Eskola nazionalean ikasi zuen 14 urtera arte. Zesta-puntan jokatzen zuen eta 16 urterekin Mallorcara joan zen jokatzerantz eta, bide batez, han soldaduska egitera.

Hemezortzi urterekin Markinara bueltatu zen, baina Ameriketara jokatzerantz joateko kontratua egin zioten. Pneumonia baten ondorioz, pilota utzi behar izan zuen eta Elgoibarko Danobat lantegian hasi zen lanean. Baina lanean hasi eta hilabete gutxira Ameriketara bueltatzeko aukera eman zioten, pilotako epaile bezala, eta hara joan zen lantegian baimena eskatuta. 1973an Etxepe lantegia sortu zuen beste zenbait bazkiderekin batera. Lantegian euskararen aldeko apustu handia egin izan dute sorreratik. *"Elgoibarko euskararen historia soziala"* proiekturako egin zitzaion elkarriketa.

Zintak

MAR-120

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2022-06-09
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Etxean euskaraz, kalean gaztelaniaz

- **Erref:** MAR-120/006
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:06:33. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Etxeko hizkuntza euskara zuten. Irratsaioren bat euskaraz entzuten zuten. Amonaren bi anai abadeak zirenez, etxean liburu asko zeuzkaten. Euskarazko bakar bat zeukaten baina komentura eraman zuten. Kalean ia dena gaztelaniaz egiten zuten.

2. Pilotari profesionala izan zen

- **Erref:** MAR-120/007
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Pilotariak eta erraketistak diasporan
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>16 urterekin Mallorcara joan zen zesta-puntan jokatzera eta, bide batez, han soldadutza egitera. Hemezortzi urterekin Markinara bueltatu zen, baina Ameriketara jokatzera joateko kontratua egin zioten. Pneumonia zuela, Markinara bueltatu zen eta, sendatu eta gero, pilotan jarraitu zuen. Baina lesionatu egin zen eta, nahiz eta operatu, ez zen guztiz osatu.</p>

3. Pilotako epailea Ameriketan

- **Erref:** MAR-120/008
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Pilotariak eta erraketistak diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Diasporako bizimodua

Laburpena:

<p>Pilotako lesioetatik ez zenez osatu, lanean hasi zen Danobat lantegian, baina hilabete gutxira Ameriketara bueltatzeko aukera eman zioten, pilotako epaile bezala. Lantegian baimen bat eskatu zuen. Ameriketan 4-5 lagun bizi ziren etxe berean. Soldata. Bizimodua.</p>

4. Etxepe lantegiaren sorrera I

- **Erref:** MAR-120/009
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:14:38. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Danobat-eko lankide batzuk beste enpresa bat sortu nahi zuten eta Carmelori sortzaile izateko eskaera luzatu zioten. Baietz esan eta Ameriketara joan zen pilotako epaileko sasoia egitera.

5. Ameriketan ere euskaraz

- **Erref:** MAR-120/011
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Ameriketan bizimodua euskaraz egiten zuten. Carmelori herriko hizkerak itsasten zitzaizkion. Danobat-en ere euskara asko entzuten zen eta euskara bultzatzeko proposamenak zeuden.

6. Etxeperen sorrera: euskara, sortzaileak, kokapena...

- **Erref:** MAR-120/012
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:25:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Enpresa berria sortu zutenean, euskararen erabilera globala helburuetako bat zen: fakturretan, estatutuetan, bankuko harremanetan... horrek arazo dezente sortu zien hasieran gehienbat. Etxepeko sortzaileak. Korta baten lan egitetik pabiloi industrial batera pasatu ziren.

7. Etxepe eta euskara I

- **Erref:** MAR-120/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:25:33. **Bukatu:** 00:27:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Pabiloi berrian kokatu zutenean lantegia, makina handiagoak jarri zituzten, 24 orduz lanean egoteko. Eskola profesionaletako langileak kontratatzeke baldintzetako bat euskara menderatzea zen. Lantegi barruko funtzionamendu osoa hasieratik euskaraz izan da; gaur egun ere bai.</p>

8. Etxepe eta euskara II

- **Erref:** MAR-120/014
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:27:33. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Felix Etxeberria `Parapan´en ideiei jarraituz adostu zen enpresa guztiaren funtzionamendua euskaraz izatea. Gainerako bazkideak ados egon ziren hasieratik. Eskutitzak gaztelaniaz idazteko eskaerak jaso izan dituzte.</p>

9. Etxepe eta euskararen aldeko apustua

- **Erref:** MAR-120/015
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

IMH-ren sorreran, herriko lantegiek zer behar zituzten jakiteko bilera bat egin zen. Etxeppek langile espezializatu euskaldunak eskatzen zituen baina IMH-ko zuzendariarentzat ez zen garrantzizko kontu bat. Urteetara, Etxepe-ri barkamena eskatu zion.

10. Etxeperen funtzio soziala euskarekiko

- **Erref:** MAR-120/016
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:37:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Etxeppek diruz laguntzen zituen euskarazko ekimenak eta ekintza ezberdinak: ipuin-lehiaketak, Elgoibarko ikastola, kirolak... Etxeppek beti izan du euskararekiko funtzio sozial sakona.</p>

11. Etxeperen euskara politikarengatik kexak eta zorionak

- **Erref:** MAR-120/018
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:37:26. **Bukatu:** 00:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Fakturak, albaranak... euskaraz bidaltzeagatik kexak eta zorionak jaso dituzte. Kataluniako enpresa batetik zorion mezu asko jaso izan zituzten.

12. Korrikak Etxepe omendu zuenean

- **Erref:** MAR-120/019
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:40:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Korrikak Etxepe omendu zuenean. Poz handia eman zien eta nahiz eta hasierako lana gogorra izan zen, lortutakoari buruz pentsatzeak harro sentiarazten du Carmelo.</p>

13. Euskarazko korrespondentzia eskatzeko zigilu pertsonalizatuak

- **Erref:** MAR-120/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:40:52. **Bukatu:** 00:42:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Udaletxetik, Foru Aldunditik... heltzen zitzaizkien gaztelaniazko eskutitzak euskaraz eskatzeko zigilu bat sortu zuten. Eskutitzen bat gaztelaniaz heltzen bazen, zigilua gainean jarri eta bueltan bidaltzen zuten.

14. Etxepeko langile guztiak euskaldunak dira

- **Erref:** MAR-120/025
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:50:19. **Bukatu:** 00:52:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Enpresetan euskara-planak garatzeko dirulaguntzak egon badira ere, Etxepek ez du inoiz laguntzarik jaso. Hasierako baldintza izan zen euskara menperatzea.

15. Elgoibarko euskararen egoera

- **Erref:** MAR-120/032
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Nahiz eta ikasketa gehienak gaur egun euskaraz izan, kalean gaztelania asko entzuten da. Erabilera bultzatzeko pausoak falta dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com